

Joan den larunbat goizaldean, Laudion festan geundela, poliziaren patruila bat gure aurka oldartu zen, aitzakia faltsu baten pean: gutxienez beste 100 pertsona zeuden leku batean, guk polizia iraindu genuela. Une horretan, hainbat agente kotxetik atera ziren eta borrak eskuan guregana hurbildu ziren, gure koadrillako gazte bat atxilotuta eramateko asmoz. Tentsio momentu horretan eta gertaeren arrazoien bila zer ari zen gertatzen galdetu genien baina haiek, behin eta berriz gauza bera erantzuten zuten: “Badakizue zergatia, badakizue”. Bestelako azalpenik gabe, ertzaintza gure aurka oldartu eta jipoitu gintuzten. Gutako batzuk kolpe gogorak jaso genituen, saihestetatik gora, buruan jotzeko asmoa baitzuten.

Behin lehenengo karga hau pasata eta gutako inor eramane ez zutela ikusita gauzak baretu ziren eta festan jarraitzea erabaki genuen. Baina bapatean, Ertzaintzaren patruila gehiago bertaratu ziren bertara eta 10 ertzainek gerora atxilotuko zuten gaztearen aurka jo zuten. Honek, izututa, aurrean zuena ikusirik korrika egitea erabaki zuen handik urruntzeko asmoz. Une horretan, agente guztiek gehi kalez jantzitako sekretak bere atzetik joatea erabaki zuten eta lurrera bota arte ez zuten gaztea atzeman. Behin harrapatuta, garondoan jarri zioten borra, nahiz eta mutikoak, bere burua lasterka egiteko indarrrik gabe ikusi zuen unetik, ertzainei adierazi zien ez ziela inolako erresistentziarik jarriko.

Horren ostean, zenbait lagun Ertzaintzaren Laudioko egoitzara hurbiltzea erabaki genuen gure lagunaren egoera gertutik ezagutzeko asmoz. Une horretan, polizia-kordoi bat jarri zuten gu hurbiltzeko aukera ukatzeko. Baina ez ziren kordoirak mugatu, poliziak berriz ere gure kontra egin zuen, beren ekintzaren argudioak eskatu besterik nahi ez genuen bitartean. Halako batean, gutako baten aurka oldartu ziren eta inolako froga barik, guztien harridurarako, lehen kargan parte-hartu izana leporatu zioten eta poliziaren kontrako erasotzea leporatu nahi diote. Bestalde, atxilotutako gaztea Gasteizko polizia-etxera eramane zuten eta bertan gaua pasa zuten.

Hau guztia dela eta, Ertzaintzak komunikabideetara helarazi duen gertakarien errelato interesatua salatu nahi dugu, gezurretan oinarritzen baita hasieratik. Arbitrarioki eta amorru handiz, arrazoirik barik bertan geunden gazteon aurka oldartu eta jipoitu gintuzten. Gertakarien bertsio bat zabaltzen ari dira, errepresioa bultzatzen duena eta leporatzen dizkiguten kargu guztiak justifikatzea helburu dituen. Beraz, prozedura osoa bertan behera geratzea eta kide guztion absoluzioa exijitzen dugu.